

## **6. BEZEROEKIKO HARREMANAK**

- **Nola erakarriko dituzue bezero berriak, eta nola mantendu eta hazi araziko dituzue bezero horiek?**

Bezero berriak artisau azoketan egingo ditugu. Bertara inguratzen diren pertsonak gurekin pertsonalki harremanetan jartzeko aukera izango dute eta guk laguntza pertsonala emango diegu. Horrez gain, webgune eta sare sozialen bidez, gure produktuaren berri emango diegu, bertan produktuari buruzko informazioa eta harremanetarako telefono zenbakia eskainiz, eta zalantzak sortuz gero, webgunean gmail helbide bat egongo da. Gehigarri bezala, gure ingurukoek gure produktua sare sozialetan zabalduko dute, webgunearen esteka eta produktuaren argazkiak partekatuz. Azkenik, gure lagun baten amaren dendan salduko ditugu ale batzuk.

Gainera, bezeroak erakartzeko eta hasierako salmenta sustatzeko, deskonturen bat eskainiko dugu (lehenengo 20 galtzek %20ko merkealdia izango dute). Denda edo merkatuetara gerturatu gabe ere erosi ahal izango dira galtzak: zerbitzu automatizatua izango dugu webgunean bertan bezeroek eskabideak egin eta ordaintzeko.

